ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2020
10/1
INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2020



# Laudiok bere gobernantza onagatik Europan aintzatetsitako hamargarren euskal udala izan nahi du

Laudioko Udalak bat egin du ELoGE proiektuaren hirugarren edizioarekin, Gobernantzaren arloko Europako Bikaintasun Zigilua dena Europako Kontseiluak ematen duena Gobernu onaren 12 printzipiotan oinarrituta. EUDELek EAEko udal hautagaitzak babestu eta koordinatzen ditu eta Laudioko Udalari laguntza emango dio.

Berrikuntza publikoan eta kudeaketaren etengabeko hobekuntzan oinarritutako udal-estrategiarekin jarraituz, Laudioko Udalak

# Laudio aspira a ser el décimo Ayuntamiento vasco reconocido en Europa por su buena Gobernanza

El Ayuntamiento de Laudio se suma a la tercera edición del proyecto ELoGE, un Sello Europeo de Excelencia en materia de Gobernanza que concede el Consejo de Europa en base a 12 principios de buen Gobierno. EUDEL apoya y coordina las candidaturas municipales vascas, y asistirá al Ayuntamiento de Laudio.

Siguiendo con la estrategia municipal basada en la innovación pública y la mejora continua en la gestión, el Consistorio laudioarra ha comenza-






gobernantzaren arloko Europako Bikaintasun Zigilua ezartzeko lanak hasi ditu.

Prozesu honen helburua tokiko eragileen ekintza mobilizatzea eta sustatzea da, herritarrek tokiko mailan gobernantza demokratiko on bat izan dezaten, tokiko zerbitzu publikoak etengabe hobetuz eta herritarrak eta arduradun politikoak beren itxaropenen arabera inplikatuz.

Hori dela eta, lan-fase honetan, herritarrei online inkesta bat ireki zaie, eta udalaren www.laudio.eus webgunean egongo da eskuragarri urriaren 16ra arte, Laudioko Udalean printzipio horiek betetzeari buruz zer iritzi duten jakiteko.

Anima zaitez!

**Printzipioak:**

1. Hauteskundeak eta ordezkaritza eta partaidetza justua
2. Erreakzionatzeko gaitasuna
3. Eraginkortasuna eta efikazia
4. Irekiera eta gardentasuna
5. Zuzenbide Estatua
6. Jokabide etikoa
7. Eskumenak eta gaitasunak
8. Berrikuntza eta aldaketaren aurrean espiritua irekitzea
9. Jasangarritasuna eta epe luzerako orientazioa
10. Finantza-kudeaketa osasuntsua
11. Giza eskubideak, kultura-aniztasuna eta gizarte-kohesioa
12. Kontuak emateko betebeharra

do sus trabajos para la implantación del Sello europeo de Excelencia en materia de Gobernanza.

El objetivo es movilizar y estimular la acción de los actores locales, para que los ciudadanos y ciudadanas puedan beneficiarse de una buena gobernanza democrática a nivel local, mediante la mejora continua de los servicios públicos locales, la implicación de la población y de unas y unos responsables políticos a la altura de sus expectativas.

Por ello, en esta primera fase de trabajo, se ha abierto una encuesta online a la ciudadanía, que estará disponible en la web municipal www.laudio.eus hasta el 16 de octubre, para conocer su opinión con respecto al cumplimiento de dichos principios en el Ayuntamiento de Laudio.

¡Anímate!

**Principios:**

1. Elecciones y una representación y participación justas
2. La capacidad de reacción
3. La eficiencia y la eficacia
4. La apertura y la transparencia
5. El Estado de derecho
6. Un comportamiento ético
7. Las competencias y las capacidades
8. La innovación y la apertura de espíritu ante el cambio
9. La sostenibilidad y la orientación a largo plazo
10. Una gestión financiera sana
11. Los derechos humanos, la diversidad cultural y la cohesión social
12. La obligación de rendir cuentas




## Badago ikusgai udal webgunean gardentasuneko online plataforma

Plataforma honen bidez, Laudioko Udalak abian jarritako programa eta zerbitzu guztiak ezagutuko ditugu. OPEN GOVERNMENT PARTNERSHIP Euskadi erakundeen arteko aliantzak sustatutako tresna digital bat da, aukera emango diona gizarteari, oro har, gobernu-taldearen aginte-planaren betetze-maila ezagutzeko.

## Disponible en la página web municipal la plataforma online de transparencia

A través de esta plataforma podremos conocer todos los servicios y programas puestos en marcha por el Ayuntamiento de Llodio. Una herramienta digital, promovida por la alianza interinstitucional OPEN GOVERNMENT PARTNERSHIP Euskadi, que permitirá a la sociedad en general conocer el grado de cumplimiento del plan de mandato del equipo de Gobierno.

# KULTURA/ CULTURA

## Kultura Etxeko eta Udal Kiroldegiko ikastaroak

COVID-19ak sortutako egoera dela eta, Kultura Etxeko eta udal Kiroldegiko ikastaroak bertan behera jarraitzen dira, beraz, beste abisua eman arte eta egoera hobetu arte ez dira hasiko.

**Ordua eskatze eta edukiera**

Horrez gain, gogoratu nahi dizuegu irekita dauden leku guztietan edukiera mugatua izango dela, eta sarbidea aldez aurretik hitzordua eskatu behar dela; horretarako, abonatuek lehentasuna izango dute aldez aurretik hitzordua hartzeko. Igerilekuei dagokionez, sarbidea mugatua izango da soilik abonatuentzat. Hori bai, abonatu ez direnek egun berean erreserbatu ahal izango dute, horretarako lekurik badago. Hitzordua eskatzeko bi aukera daude: 944 034 950 telefono zenbakira deitzea da edota kiroldegiko harreran bertan egitea.

## Cursos de la Kultura Etxea y el Polideportivo municipal

Debido a la situación originada por la COVID-19 los cursos tanto de la Kultura Etxea como del Polideportivo municipal se mantienen suspendidos provisionalmente, por lo que no se dará inicio a estas actividades hasta nuevo aviso.

**Cita previa y aforo**

Además, recordamos que en todos los espacios que se encuentran abiertos en el polideportivo, el aforo será limitado y el acceso con cita previa, aunque los abonados y las abonadas tendrán prioridad para concertar cita previa.
Para el caso de las piscinas, el acceso estará restringido únicamente a las/os abonadas/os. Eso sí, los y las no abonados o abonadas podrán reservar en el mismo día si hubiera espacio para ello. Para solicitar cita previa hay dos opciones: a través del teléfono 944 034 950 y/o en la recepción del propio polideportivo.







## Berriro dator LAUDIO TOP ZINEMA

Adi egon! Saio guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira. Edozein kexa edota iradokizun izatekotan zerbitzuari buruz, bidali diezagukezue laudiotopzinema@laudio.eus helbidera.

## Vuelve de nuevo LAUDIO TOP ZINEMA

¡Atención! Las sesiones comienzan a las 17:00 horas de la tarde. Para cualquier queja o sugerencia acerca del servicio, podéis mandarnos un correo electrónico a laudiotopzinema@laudio.eus.

**FILMAK/PELÍCULAS:**

> Urriak **3** octubre 17:00 20:00 **"LAS NIÑAS"**
> Urriak **10** octubre 17:00 20:00 **"TEMBLORES"**
> Urriak **17** octubre 17:00 20:00 **"AKELARRE"**

## HaziAraba jaialdia Laudion

Urrian Estimulazio Artistiko Goiztiarreko Landa-Jaialdiaz disfrutatu ahal izango dugu Laudion bi ekitaldiekin 1 eta 6 urte bitarteko umeentzat zuzenduta daudenak eta Lamuza parkeko Kasinoan eskainiko direnak. Jaialdi honek kulturaren eta artearen hazia Arabako lurraldeko txikienen artean zabaltzeko helburua dauka.

## Festival HaziAraba en Laudio

En el mes de octubre disfrutaremos en Llodio del Festival Rural de Estimulación Artística Temprana HAZIARABA con dos actividades para niñas/os de 1 a 6 años en el Casino del parque de Lamuza. Un festival que tiene como objetivo contribuir a sembrar la semilla de la cultura y el arte entre las/os más pequeños/as del territorio alavés.

Urriak 10 de octubre
18:00
CASINO / LAMUZA PARKEA
Antzezlana **"Kubik"** Teatro
Konpainia Teatro Paraíso Compañía
1 - 5 urte/ años

Urriak 11 de octubre
18:00
CASINO / LAMUZA PARKEA
Laburmetraiak **"Zinearte"** Cortometrajes
3 - 6 urte / años

# KIROLA/ DEPORTE

## Etor zaitez hockeyan jokatzera

Laudioko Hockey Eskolak izena emateko epea ireki die maila guztietako eskolako jokalariei. Entrenamendu guztiak euskaraz izango dira. Interesatuta daudenak harremanetan jar daitezke 657778239 telefonoan edo presidente@arabahockey.org helbidearen bidez.

## Anímate a jugar a hockey

Laudioko Hockey Eskola abre el plazo de inscripción para jugadores y jugadoras escolares de todas las categorías. Todos los entrenamientos se realizan en euskara. Las/os niñas/os y jóvenes interesadas/os pueden ponerse en contacto a través del teléfono 657778239 o email presidente@arabahockey.org



## Gazteria Zerbitzuak gurasoentzako bi ikastaro eskainiko ditu

Laudioko Ikastetxeetako lehen (LH) eta bigarren (DBH) hezkuntzan dauden ikasleen gurasoei zuzendutako gailu digitalen (mugikorra, tableta...) oinarrizko erabilerari buruzko bi ikastaro eskainiko ditu Laudioko Udalaren Gazteria Zerbitzuak. Ikastaro bakoitzak 4 ordukoak izango dira eta biak doakoak. Hilaren 20an eta 22an HLHIko liburutegian izango da, Aretako Fabian Legorburun, eta 27an eta 29an Erabilera Anitzeko Gelan.

**Ordutegia:**
Ikastaroa: urriaren 20an eta 27an, 16:00etatik 18:00etara
Ikastaroa: urriaren 22an eta 29an, 17:00etatik 19:00etara.

**Programa:**
- Gailu digitalen oinarrizko erabilerak
- Sare sozialak ezagutzea: Instagram, WhatsApp, YouTube, Snapchat...Non daude gure datuak?
- Tresnak/Aplikazioak eta pribatutasun-aukerak
- Adingabeek sare sozialetan dituzten arriskuak
- Erabiltzailearen oinarrizko segurtasuna
- Legezkotasuna, irudirako, ohorerako eta norberaren intimitaterako eskubidea.

**Izen-emateak:**
Laudioko Udalean. Gazteria Zerbitzua: 8:00-14:30. Telefonoa: 94 403 48 50. Posta elektronikoa: hezkunta@laudio.eus. Izen-abizenak, telefono-zenbakia eta adina adierazi behar dira.

## El Servicio de Juventud ofrece dos cursos para madres y padres

El Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Llodio ofrece dos cursos sobre la utilización a nivel básico de los dispositivos digitales (móvil, tablet...) dirigidos a madres y padres del alumnado de primaria y secundaria de los centros educativos de Llodio. Cada curso consta de 4 horas y ambos son gratuitos. Los de los días 20 y 22 serán en la Biblioteca del CEIP, Fabian Legorburu de Areta y los de los días 27 y 29 en la Sala Multiusos.

**Horario:**
Curso: los días 20 y 27 de octubre de 16:00h a 18:00h
Curso: los días 22 y 29 de octubre de 17:00h a 19:00h

**Programa:**
- Uso básico de dispositivos digitales
- Conocer las redes sociales: Instagram, Whatsapp, YouTube, Snapchat...¿Dónde están nuestros datos?
- Herramientas/Apps y opciones de privacidad
- Riesgos que corren las/os menores en las redes sociales
- Seguridad básica de usuario
- Legalidad, derecho a la imagen, el honor y la intimidad

**Inscripciones:**
En el Ayuntamiento Llodio. Servicio de Juventud: 8:00h-14:30h. Teléfono: 94 403 48 50. Correo electrónico: hezkuntza@laudio.eus. Se debe indicar nombre y apellidos, número de teléfono y edad.



## Robotika zer den ezagutu nahi duzu?

Udalaren Gazteria Zerbitzuak on line robotika ikastaroa prestatu du 10-18 urte bitarteko gazteentzat. STEAM filofiaren arabera, ezagutza teknikoak landuko dituzte ikuspegi artistikotik eta sormena sustatuko duten proiektuen bidez. Ikastaroaren material guztia izena ematean bidaliko da.
3 ikastaro izango dira; 10-12 urteentzako, 13-15 urteentzako eta 16-18 urteentzako. Gehienez 10 pertsona egon daitezke ikastaro bakoitzean.

**Programa:**
Azaroaren 4an hasiko da eta martxoan amaituko da (biak barne). Ordutegia: asteazkenero 18:00etatik 19:30etara. Ikastaro bakoitzeko prezioa guztira 50 eurokoa izango.

**Izen-emateak:**
Laudioko Udalean. Gazteria Zerbitzua: 8:00-14:30. Telefonoa: 94 403 48 50. Posta elektronikoa: hezkunta@laudio.eus. Izen-abizenak, telefono-zenbakia eta adina adierazi behar dira.

## ¿Quieres conocer más sobre la robótica?

El Servicio de Juventud del Ayuntamiento ofrece un curso on line de robótica para jóvenes de 10 a 18 años. Bajo la filosofía STEAM, abordarán los conocimientos técnicos desde una perspectiva artística y con proyectos donde se potenciará su creatividad. El material será facilitado con la inscripción.

Son 3 cursos en función de la edad; para 10-13 años, 13 a 15 años y 16 a 18 años. En cada curso podrá estar un máximo de 10 personas.

**Programa:**
Comienza el 4 de noviembre y finaliza en marzo (ambos incluidos). Horario: todos los miércoles de 18:00h a 19:30h. El precio total por curso es de 50 euros.

**Inscripciones:**
En el Ayuntamiento Llodio. Servicio de Juventud: 8:00h-14:30h. Teléfono: 94 403 48 50. Correo electrónico: hezkuntza@laudio.eus. Se debe indicar nombre y apellidos, número de teléfono y edad.



## Zibersegurtasuna nire negozioan?

Gero eta beharrezkoagoa da gure informazioaren, posta elektronikoaren, kontuen eta abarren segurtasuna kontrolatzea; horregatik, Laudioko Garapen Agentziak tailer hau eskaini nahi du hainbat jarraibide eta jardunbide egoki erakusteko, ahalik eta modu seguruenean lan egin ahal izateko.

Merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten dutenentzako doako tailerra da. Urriaren 22an izango da, arratsaldeko 15:30tik 17:00etara, interneten bidez, ZOOM plataformaren bidez, hain zuzen ere.

**Izena emateko:**
enpresetarakolaguntza@laudio.eus helbidera email bat bidali honako hauek adieraziz:

- Izen-abizenak
- Telefono-zenbakia
- Helbide elektronikoa
- Zein negoziotakoa den
- Bizilekua duen udalerria

Informazio guztia: 944034980 telefonoan eta garapenagentzia@laudio.eus helbidean.

## ¿Ciberseguridad en mi negocio?

Cada vez resulta más necesario tener control sobre la seguridad de nuestra información, correo electrónico, cuentas, etc. Por ello, la Agencia de Desarrollo de Llodio ofrece este taller mostrando una serie de pautas y buenas prácticas para poder trabajar de la forma más segura posible.

Es un taller gratuito dirigido a personas que trabajan en comercio y hostelería. Tendrá lugar el 22 de octubre, de 15:30h a 17:00h, a través de internet, mediante la plataforma ZOOM.

**Para inscribirse:**
manda un email a enpresetarakolaguntza@laudio.eus indicando:

- Nombre y apellidos
- Nº de teléfono
- Email
- Negocio al que pertenece
- Municipio de residencia

Toda la información en: el teléfono 944034980 y el correo garapenagentzia@laudio.eus.

## Nola grabatu eta editatu sareetarako eta webgunerako bideoak?

Laudioko Garapen Agentziak tailer honetan erakutsiko digu nola muntatu bideo bat modu errazean, norberaren edukitik abiatuta, YouTubeko negozio-kanal batean, sare sozialetan, webguneetan eta abarretan txertatzeko.

Merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten dutenentzako doako tailerra da. Urriaren 8an izango da, arratsaldeko 15:30tik 17:00etara, interneten bidez, ZOOM plataformaren bidez, hain zuzen ere.

**Izena emateko:**
enpresetarakolaguntza@laudio.eus helbidera email bat bidali honako hauek adieraziz:

- Izen-abizenak
- Telefono-zenbakia
- Helbide elektronikoa
- Zein negoziotakoa den
- Bizilekua duen udalerria

Informazio guztia: 944034980 telefonoan eta garapenagentzia@laudio.eus helbidean.

## ¿Cómo grabar y editar vídeos para redes sociales y páginas web?

La Agencia de Desarrollo de Llodio ofrece este taller taller para enseñarnos cómo montar una video de forma sencilla a partir de contenido propio para incorporarlo en un canal de negocio de YouTube, redes sociales, web, etc.…

Es un taller gratuito dirigido a personas que trabajan en comercio y hostelería. Tendrá lugar el 8 de octubre, de 15:30h a 17:00h, a través de internet, mediante la plataforma ZOOM.

**Para inscribirse:**
manda un email a enpresetarakolaguntza@laudio.eus indicando:

- Nombre y apellidos
- Nº de teléfono
- Email
- Negocio al que pertenece
- Municipio de residencia

Toda la información en: el teléfono 944034980 y el correo garapenagentzia@laudio.eus.

## Euskaltegietan matrikulatzeko epeari eta euskara ikasteko laguntzei buruzko informazioaren berri izan

Irailean zehar zabalik egongo da euskaltegietan 2020-2021 ikasturterako matrikulatzeko epea. Horrez gain, Laudioko Udalak lagunduko du matrikula gastua beka batzuk emanez.

**Zenbateko diru-laguntzak**

0,45 euro emango dira ikastaroan eskainitako irakastordu bakoitzeko, eta 0,90 euro eskatzailea langabezian egon bada. Kostu horiek dira Udal Euskaltegiaren matrikula-tasei dagozkionak, beraz, matrikularen %50 edo %100 itzuliko da kasu guztietan bere kasuan. Bestelako euskaltegian ikasi nahiko balitz horiek beroriek ere izango lirateke kopuruak.

Ikastaroak edozein euskaltegi homologatutan egin daitezke, Laudiokoa zein kanpokoa izanda, eta laguntzetan sartuko dira baita urrutiko ikaskuntza-ikastaroak edo multimedia-sistemak ere.

## Infórmate sobre el periodo de matriculación en los euskaltegis y las ayudas para estudiar euskera

Durante el mes de septiembre permanece abierto el período de matriculación en los euskaltegis para el curso 2020-2021. Además, el Ayuntamiento de Llodio sufragará el coste de matriculación con la concesión de unas becas.

**Importe de las ayudas**

Dichas ayudas constarán de 0,45 euros por hora lectiva impartida en el curso y de 0,90 euros en el caso de que la persona solicitante haya estado en situación de desempleo. Esos costes son los correspondientes a las tasas de matriculación del Euskaltegi Municipal, por lo que se devolverá en todos los casos el 50% o el 100% de la matrícula en su caso. En el caso de estudiar en cualquier otro euskaltegi, se seguirán aplicando estas idénticas cantidades.

Los cursos podrán realizarse en cualquier euskaltegi homologado, de dentro o fuera de Laudio, y también se incluirán en las ayudas los cursos de aprendizaje a distancia o por sistemas multimedia.



## Udal Euskaltegiak Lamuza kaleko sarbidea berriz zabalduko du

Udan zehar parkeko sarbide bakarra izan ondoren, obrak egon baitira, betiko Lamuza kaleko sarbidea ere erabiltzaileentzako erabilgarria izatea espero da ikasturtearen hasieratik aurrera.

## El Euskaltegi municipal reabre el acesso de la calle Lamuza

Tras haber tenido un único acceso desde el parque a lo largo del verano, debido a las obras, se espera que a partir del comienzo del curso también esté habilitada para los/las usuarios/as la entrada habitual de la calle Lamuza.



## Laiaeskola

**Hilekoari buruzko topaketa**

“Babestuta egoteko eta epairik gabeko lekua”. Irakasleak, bere esperientzia adierazteaz gain, praktikoak diren zenbait tresna partekatuko ditu parte hartzaileekin, norberaren auto behaketa propioa egiteko. Zalantzak eta galderak egiteko tartea ere egongo da, prozesuan konparaezina baita norberaren bizipen pertsonala.

**Hezitzailea:** Enara Iruretagoiena
**Noiz:** 2020/10/14. 19:00-21:00
**Nola:** ONLINE
**Norentzat:** Emakumeak
**Hizkuntza:** Gaztelania
**Antolatzaileak:** Laudioko Udala y Arabako Foru Aldundia
**Informazioa eta inskrikpzioak:** www.laiaeskola.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegiak. Baita 944 03 48 50 udal telefonoaren bidez eta berdintasuna@laudio.eus helbidean.

***Gehiago:** LaiaEskola liburuxkan

## Laiaeskola

**Encuentro sobre la menstruación**

“Un lugar para estar protegidas y sin prejuzgar”. La formadora expondrá su propia experiencia y compartirá con las participantes una serie de instrumentos prácticos para la auto-observación propia de una misma. También habrá lugar y espacio para dudas y preguntas, al ser importante la propia vivencia personal.

**Formadora:** Enara Iruretagoiena
**Cuándo:** 14/10/2020. 19:00-21:00
**Cómo:** ONLINE
**Para:** Mujeres
**Idioma:** Castellano
**Organiza:** Ayuntamiento de Llodio y Diputación Foral de Álava
**Información e inscripciones:** www.laiaeskola.eus, boletín mensual, redes sociales y cartelería. También en el teléfono municipal de igualdad 944 03 48 50 y el correo berdintasuna@laudio.eus

***Más:** en el folleto de LaiaEskola


ÚLTIMOS DÍAS
BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
shopping days
BAUTISTA
25 días
Hasta
-25%
EN TODAS NUESTRAS SECCIONES
Financia tu compra GRATIS y no empieces a pagar hasta DICIEMBRE

# EKONOMIA/ ECONOMÍA



## Laudio Hazik COVID-19aren ondoriak jasan izan dituzten merkataritza, ostalaritza eta tokiko zerbitzuak suspertzeko programa bat eskaintzen du

Laudioko hazik udalerriko enpresak (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak) suspertzeko programa bat antolatu du, COVID-19ko krisiak eraginda.

Programa honetan, 1 eta 2 ordu arteko 4 saio online (Zoom edo Teams plataformak) egingo dira urriaren 13-15-20 eta 22an (asteartetan eta ostegunetan) 15:00etatik aurrera, eta banakako 2 aholkularitza-saio egingo dira enpresan bertan. Negozioak finantzen eta merkataritzaren ikuspegitik suspertzera bideratuta daude, diagnostikotik abiatuta.

Egungo egoera dela eta, edukiera mugatua izango da 6 parte-hartzailerentzat izanda. Kostua doakoa. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko 94 40 34 980 telefonora deitu edo mezu bat bidali enpresetarakolaguntza@laudio.eus helbidera.

## Laudio Hazi ofrece un programa de reactivación para el comercio, hosteleria y servicios locales afectados por la COVID-19

Laudio Hazi organiza un programa de reactivación de las empresas (comercio, hostelería y servicios) del municipio laudioarra que se hayan visto afectadas por la COVID-19.

Consiste en 4 sesiones online (plataformas Zoom o Teams) de entre 1 y 2 horas de duración los días 13-15-20 y 22 de octubre (martes y jueves) a partir de las 15:00h y 2 sesiones de asesoramiento individualizado in situ en la empresa. Están enfocadas a reactivar los negocios desde el punto de vista financiero y comercial partiendo de su diagnóstico.

Debido a la situación actual el aforo estará limitado a 6 participantes. El coste es gratuito. Para inscribirse y recibir más información a través del teléfono 94 40 34 980 o enviando un mensaje al correo enpresetarakolaguntza@laudio.eus

## 2020ko Erosketa Karruselaren lehen zozketa

Raquel Beltran Buizak irabazi du APILLek, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren babesarekin, antolatutako 2020ko Erosketa Karruselaren lehen saria (2.000 euroko erosketa-txartela) Luyando Optikan emandako txartel batekin.

Laudioko bezeroek 2.000 euroko bi sari gehiago irabaz ditzakete oraindik, urriaren 2an eta 16an zozketatuko direnak. Eskuratu zure txartelak kanpainari atxikitako dendetan erosita. Informazio gehiago: www.laudiocomercial.com.

## Primer sorteo del Carrusel de Compras 2020

Raquel Beltrán Buiza ha sido la ganadora del primer premio (un vale de compra de 2.000€) del Carrusel de Compras 2020 con un boleto entregado en Óptica Luyando. Un concurso organizado por APILL y con el patrocinio del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco.

Las/os clientes de Llodio aún pueden ganar dos premios de 2.000€ que se sortearán los días 2 y 16 de octubre. Consigue tus boletos comprando en los comercios adheridos a la campaña. Más información en: www.laudiocomercial.com.

ZORIONAK
RAQUEL!




# OSTALARITZA/ HOSTELERÍA

## Hastear dago 2020ko Ibilbide Mikologikoa

Aurten, APILLek Laudioko XI. Pintxoaren eta Kazolatzo Mikologikoaren Ibilbidea antolatuko du azaroaren 6, 7, 8, 13, 14 eta 15ean. Ostalaritza-establezimenduren batek parte hartu nahi badu, APILLekin harremanetan jar daiteke helbide elektroniko honen bidez: apill@laudiocomercial.com edo 94 672 28 01 telefonoaren bidez. Izena emateko epea urriaren 14an amaituko da.

## Comienza la Ruta Micológica 2020

Este año, APILL organizará la XI Ruta del Pintxo y la Cazuelita Micológica de Laudio los días 6, 7, 8, 13, 14 y 15 de noviembre. Si algún establecimiento hostelero está interesado en participar, se puede poner en contacto con APILL a través del email: apill@laudiocomercial.com o en el teléfono 94 672 28 01. El plazo de inscripción finaliza el 14 de octubre.